


ttüpi-ttapa

1994.eko apirilak 7 • 131. zenbakia

Erreportaia:

**Non eta zer ikasiko dute
gazteek ondoko urteetan?**



**BITTOR ELIZAGOIEN
TXAPELDUN BERRIA**



BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

JAKINARAZTEN DA:

1994.eko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratu behar direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

Ordaintzeko era:

Ordainketak banketxetan helbideratu ez dituztenak:

Abisuan agertzen den kontura ordainketa eginez edozein banketxetan abisua hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxetan helbideratuak dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea:

- 1994.eko maiatzaren 31an bukatzen da.
- Ordaintzen ez bada, epea ekainaren 30a arte luzatuko da, %5aren erreargua aplikatzen ahal delarik.
- Epe hau pasatu ondoren premiamenduzko exekuzio bidez %20aren errearguarekin kobratuko da.

Bortzirietan, 1994.eko apirilaren 5ean.
PRESIDENTEAK

1994. URTEKO

TASAK

ERABILTZAILA MOTAK ETA TASAK

Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi nahiz ez: 6.000 pezeta.

Zaborrontzitik baserrira 200 metrotik 500 metrora bitarte dagoenean: 5.100 pezeta.

Zaborrontzitik baserrira 500 metro baino gehiago dagoenean: 4.200 pezeta.

1. Merkataritza eta zerbitzuak. Elikagaien eta elektragailuen sektoretakoak ez diren merkataritzako establezimenduak: mertzeriak, drogeriak, burnidendak, okindegiak, ileapaindegia, lan bulegoak: 6.000 pezeta.

2. Merkataritza. Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janari-dendak), elektragailu dendak eta farmaziak: 11.960 pezeta.

3. Merkataritza. Autozerbitzuak: 17.960 pezeta.

1. Ostalua. Noiz behinka irekitzen diren ostatu eta biltokiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m²ko edo gutxiagoko azalera dutenak: 11.960 pezeta.

2. Ostalua. 30 m² baino azalera handiagoko ostalutxoak eta janari denda daukaten ostalutxoak: 23.940 pezeta.

3. Ostalua. Pub eta diskotekak: 29.920 pezeta.

1. Jatetxea. Modu iraunkorrean irekirik dauden Elkarte gastronomikoak, eta borts mahai baino gutxiago dituzten jatetxeak: 29.920 pezeta.

2. Jatetxea: Borts mahai baino gehiago dituzten jatetxeak: 53.860 pezeta.

1. Hostala: Hamar logela edo gutxiagokoak: 41.880 pezeta.

2. Hostala. Hamar logela baino gutxiagokoak: 59.840 pezeta.

Merkataritzako bentak, jatetxerik gabekoak: 59.840 pezeta.

Merkataritzako bentak, jatetxedunak: 89.760 pezeta.

Lantegiak eta tailerrak, lau langile bitarte: 6.000 pezeta.

Lantegiak eta tailerrak, 5-10 langile bitarte: 11.960 pezeta.

Lantegiak eta tailerrak, 11-30 langile bitarte: 29.920 pezeta.

Lantegiak eta tailerrak, 31-60 langile bitarte: 59.840 pezeta.

Lantegiak eta tailerrak, 60 langile baino gehiagorekin: 89.760 pezeta.

Zuzenean zabortegira botatzea: 200 pezeta metro kubikoa.



NON ETA ZER IKASIKO DUTE GAZTEEK ONDOKO URTEETAN?

Udaberriaren hasieran edo, udazken aldera begiratzen hasten dira gurasoak, beren seme-alabak hamalau urtetara hurbiltzen ari direnen gurasoak. Orain ikusten ditugu ikastetxeak ere beren hurrengo urterako eskaintzak agertzen hasiak direla. Hortaz, etorkizunean irakaskuntzaren plangintza berriak 14 urtez goitikoentzat ekarriko dituen aldaketetaz hitzegiteko, Elizondo, Lekaroz, Oronoz, Leitza eta Beran kokatutako ikastetxeetako ordezkariak bildu ditugu zenbait argibide eman nahian.

Zerbait argitu badugu ere, ondoko urteez ez digute gehiegi erraten ahal izan. Izan ere, Berako Ikastolako zuzendariak dioenez, «Nafarroako Gobernuako arduradunen artean, eta gure artean, izugarrizko nahaste-borrastea dago egiten denari buruz». Horregatik, zu-

hur eta segurantzaz haundiegirik gabe mintzatzen ahal gara gerokoaz.


HELDU DEN IKASTURTEAN ZER?

Heldu den ikasturterako ez da aldaerarik izanen. Eta ondokoetan ere, orain hamabi urte edo gehiago dituztenentzat lehen bezala segituko dute eskolako programek, ume hauek ikasketak bukatu arte. Ez dugu, izan ere, atzendu behar, plan berria hasiagatik batzuentzat, plan zaharrekoek lehengoan segitzen ahal izanen dutela.


TESTUA
PELLO APEZETXEA
ARGAZKIAK
MIREN KARMELE TOLOSA

● BAZTAN HARANA INSTITUTUA (LEKAROZ)


93/94ko ikasle kopurua: **506**



EUSKARAZ




ERDARAZ



● LEITZAKO LANBIDE ESKOLA

ESPEZIALITATEAK



93/94 ikasturteko ikasle kopurua: **131**

EUSKARA / ERDARA



● SAN MARTIN ESKOLA (ORONOZ)

ESPEZIALITATEAK



93/94 ikasturteko ikasle kopurua: **101**

EUSKARA / ERDARA



● ELIZONDOKO LANBIDE ESKOLA


ESPEZIALITATEAK



EUSKARAZ



ERDARAZ



93/94 ikasturteko ikasle kopurua: **206**



95-96: PLANGINTZA BERRIAREN ETA ALDAKETEN HASIERA

Urte horretan hasiko dira orain 6. ikasturtean ari direnzentzat aldaketak. Plangintza berriaren arabera, derri-gorrezko ikasketak hamasei urteak arte luzatuko dira, bi zatitan banatuak: 12 urteak arte eta 12tik 16ra arte. Ondotik, aukerazko ikasketak eskeiniko dira: batxilergoa bi urtez, eta lanbide edo profesional ikasketak, gai eta


modulo edo ikasturte desberdinez osatuak. Dena den, plangintza hori oraindik proiektua da, eta urte batzuk joanen dira bere osotasunean ikusi arte. Eta bitartean, ez zalantzarik izan, aldaera bat baino gehiago eraginen diote.

NON EGITEN AHALKO DIRA PLANGINTZA BERRIKO IKASKETAK?

Nafarroako Gobernuak jakitera eman du berak eskeiniko duen ikastetxe sa-

● TOKI ONA INSTITUTUA (BERA)

ESPEZIALITATEAK



EUSKARAZ



ERDARAZ



93/94 ikasturteko ikasle kopurua: **369**





rea. Kontutan eduki eskeintza horretan aldaketaren bat edo bertze izan daitekeela, denak ez baitaude konforme Gobernuarekin.

Horrez gain, Berako eta Lesakako ikastolek, biek batera, badute beren eskeintza berezia. Izan ere, ikastetxe hauek ez dira Gobernuaren agintepekoak, autonomoak baizik. Oronozko Nekazal Lanbide Eskolak, 14-16 urteetako irakaskuntza eskeintzen duenez orain arte, eskolako irakaskuntza 16 urteak arte legez luzatutakoan, zer egingen du?. «*Ez dakigu zer gertatuko den*», erran digu Ramon Apeztexea Eskolako arduradunak. «*Gobernuaren aldetik ere hainbat eta hainbat aldaketa izaten dira, gaur erran duena bihar ukatuz edota gerorako utziz*».

ZER IKASTEN AHAL IZANEN DA?

Hamalau urte arteko ikasketak obligaziozkoak direnez, berdinak dira denetan; zera erran nahi dugu, gai eta programa berdinak irakasten direla, gobernuak antolatutakoak. Baina gerokoak? Adin bererako izanagatik, ikastetxeen eskein-

tzak ez dira berdinak. Errate baterako, Lanbide Eskola edo Profesionala izen duten ikastetxeetan gai ezberdinak ikasten ahal dira, hau da, eskola batean batzuk, bertzean bertzeak. Institutu edo Batxilergorako ikastetxeetan ere gauza bera.

Bada aipatu beharra. Lanbide edo ofiziotarako irakaskuntza-eskeintzak orain baino askoz ugariagoak izanen dira. Toki Ona Institutuko Jose Mari Irazokik erran digunez, «*300etaraingo ailegatuko dira, behar bada, eskeintza horiek*». Nornahi ohartzen ahal da zonaldeko ikastetxeetan ezinezkoa dela hainbertze gauza irakastea; horrek zera erran nahi du, aukera batzuz baliatu nahi izanez gero, kanpora joan beharko dela ikastera.

ETA EUSKARAZ, ZER?

Leitzan euskaraz bakarrik emanen dela dio Santi Larrazek. Baztan eta Bortziriako ikastetxeetan ikasleagoak aginduko du, euskaraz eta erdaraz emanen denaren neurriak haundiagoak eta ttikiagoak izan. Orain arte bezala bietan egiteko aukera eskeiniko dute. «*Bi es-*

PLANGINTZA BERRIAREKIN DAUDEN AUKERAK

BAZTANALDEA

	HERRIAN	ELIZONDON	(ORONOZEN)? LEKAROZEN ELIZONDON
Almandoz	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak
Amaiur	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak
Arizkun	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak
Arraioz	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak
Azpilkueta	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak
Elizondo	3-16 urteak		16-18 urteak
Erratzu	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak
Gartzain	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak
Irurita	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak
Irurita-Baigorri	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak
Ornoz	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak
Ziga	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak
Urdazubi	3-14? urteak	14-16 urteak	16-18 urteak
Zugarramurdi	3-14? urteak	14-16 urteak	16-18 urteak

BORTZIRIAK

	HERRIAN	BERAN
Arantza	3-12 urteak	12-18 urteak
Bera	3-16 urteak	16-18 urteak
Etxalar	3-12 urteak	12-18 urteak
Igantzi	3-12 urteak	12-18 urteak
Lesaka	3-12 urteak	12-18 urteak

LEITZALDEA

	HERRIAN	LEITZAN
Areso	3-12 urteak	12-18 urteak
Ezkurra	3-12 urteak	12-18 urteak
Goizueta	3-14 urteak	14-18 urteak
Leitza	3-18 urteak	

MALERREKA

	HERRIAN	DONEZTEBEN	ELIZONDON LEKAROZEN ORONOZEN
Beintza-Labaien	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak
Donamaria		3-16 urteak	16-18 urteak
Elgorriaga		3-16 urteak	16-18 urteak
Erasun	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak
Ituren	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak
Legasa	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak
Narbarte	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak
Oitz		3-16 urteak	16-18 urteak
Saldias	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak
Sunbilla	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak
Urrotz		3-16 urteak	16-18 urteak
Zubieta	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak

keintzak, euskarazkoa eta erdarazkoa beti egiten dira. Eta gero ere egingen dira». Lekarozko Maite Mendiluzeren hitzak ditugu. Eta berdin diote Elizondoko Patxi Olabek eta Berako Jose Mari Irazokik. Hori Berako

Ikastolaren eskeintzaz apartete.

Kaso batzuetan, hala ere, euskaraz eta erdaraz irakasteko gastuagatik euskarazkoa murriztuko den beldurak jotzen duela dio Ramon Apeztexeak.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 5.700 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA.: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

uzendaria: Joxemanuel Iri-
dien. **Publizitatea:** Miren
Armele Tolosa. **Erredakzioa:**
tor Arozena, Joxemanuel Iri-
dien. **Erredakzio taldea:** Pe-
o Apezetxea, Juainas Paul,
ristina Boan, Bittori Telletxea.
erriemaileak: Joseba Azpi-
z, Esteban Arozena, Juana
ari Saizar, Ainhoa Mutuberria,
an Isasi, Txema Aldabe, Pello
xegia, Txema Urroz, Patxi
txandorena, Daniel Martirena,
abel Maia, Josune Etxebeste,
ablo Mendiburu, Joseba Iga-
bide, Alizia Olaizola, Margari
xenike, Koro Irazoki, Mixel
erendiain, Jacqueline, Marta
urria, Oskar Txoperena, Al-
erto Sansiñena, Pello Apeze-
tea, Aitor Arozena, Kristina
oan. **Kolaboratzaileak:**
HNE Nafarroa, Patxi Lasas,
osetxo Susperregi.

primategia: Gertu (Oñati).
ttiipi-ttapa ez du bere gain
artzen derrigorrez, aldizkarian
dierazitako erranen eta eritzien
antzikizunik

arakunde Laguntzaileak:
era, Leitza, Goizueta, Areso,
aztan, Urdazubi, Zugarramur-
eta Sarako udalak, Bor-
rietako Euskara Mankomuni-
tea, Malerreka Zerbitzu
ankomunitatea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzaren
ultura Saileko laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Nafarroako Euskararen Legearen aldaketa

Euskaldun sentitzen den edonork bultzatu behar du aldaketa

Juan ORONOZ
Leitzako alkatea (EA)

Nafar guztiek eskubide berdinak izatea eta zona guztietan hemengo ikaste-
txeetan bezala euskara ematea ongi egonen litzate-
ke. Baina Nafarroako erreali-
tatea ere kontutan hartu behar da; lehengo legeak hiru eremu ezartzen zituen. Euskal eremuan asko indartu da euskara eta eremu mixtoan euskal ikasleak hirukoiztu dira, baina zona erdaldunean gauregun, oso zaila da euskara ikastea, izugarritzko borroka da. Lege berriarekin orde, eremu mixtoaren aukera eman nahi zaio eremu erdaldunari ere. Hau bultzada garrantzitsua da, euskaldun sentitzen den edonork bultzatu beharko luke dudarik gabe, ezin baita esan 'dena edo ezer ez'. Gehiago behar da, baina aurrerapausoei ezin ezetz esan. Diru horrekin jendea euskalduntzea eta euskara normalizatzea lortuko da eta noski, euskararen kontrakoentzat hori ez da errentablea, kontraproduzentea baizik.

Euskara Nafarroa osora zabaldu nahia anakronismoa da

Rafael GURREA
UPNko ordezkaria

Lege honen aldaketak ez dio eragiten eremu euskaldunari. Guk ez diogu inoiz oztoporik jarri Euskararen Legearen garapenari, normala iduritzen zaigu eremu horretan euskaraz hitzegitea eta euskara bera babestea eta zaintzea.

Aldaketa proposamenari dagokionez, euskara Nafarroa osora zabaldu nahi izatea anakronismoa da. Zerbait alderdi politikorentzat honetan urtean 2.000 milioi inbertitu beharko liratekeen, baina nire ustez hobe izanen zen diru hori frantzea eta ingelesa irakasten inbertitzea. Lan munduari begiratu gero, baliagarriagoa litzateke. Inbertsoreak lasaigo etorriko dira hemen beraien hizkuntzak ezagutzen ditugula jakinez gero.

Europako hizkuntza minoritarioen komisioak errana du Nafarroan behar baino gehiago zaintzen dugula euskara. Ez dago Espainia mailan hemen haina egin duenik hizkuntza minoritario baten alde.

Euskararen legeak sakoneko aldaketa behar du

Iñaki GOGORZA
Berako kontzejala (HB)

Euskararen legeak efektiboa izateko erabateko aldaketa behar du. 1986an ezezkua emateko arrazoi berberak mantentzen dira, izan ere nafar batzuk diskriminatuak daude. Lehen hiru eremu ziren eta orain bi, eremu mixtoa eta erdalduna parekatuz. Baina azken finean nafar hizkuntza nafar guztien patrimonioa baldin bada, ez dago zergatikan diskriminazio hori egin beharrik.

Lehenago inolako aurrerapausorik ekartzen ez zuelako izan da lege aldaketa hau. Honela, lege berriarekin posibilitate berriak irekiko zirela erakutsi nahi zaio gizarteari, baina hasierako akats berdinak mantentzen ditu. Hizkuntza mailan ezin dugu kriterio ekonomizistekin jokatu, bertzenaz keinuka solastuz bukatuko genuelako. Ez du zentzurik diru gehiago kostako dela alegatzea. Garai hauetan krisia aipatzen da bertze argumentorik ez denean, jendea beldurtzeko.

EKAITZA OSTATUA

Goizeko 10etan irekia
asteleheneretik ortziralerara

Altzate - BERA

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO BIDAIAK

- ✕ HERRIAK
- ✕ MENDIAK
- ✕ TURISMOA
- ✕ TREKING eta BIDAIA ALTERNATIBOAK

BIDAI
AGENTZIA
G.A.T. 2.015

ADRIANA KALEA, 5
☎ 943 - 615177
☎ 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 IRUN

BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO

**Euskararen egoera****Angel IRURETA**Baztango Bertso Eskola
Neurria: Hamarreko haundia

*Ezin daiteke erran euskara
oso ongi dagoenik
kaletan zebar gaztelanierak
bizirik dirau oraindik
bizkuntzen artean zabarrena
dela entzuna daukat nik
munduan ez da gure euskara
berdindu dezakeenik
beraz biltzen utziko bagenu
ez genuke barkamenik.*

*Euskarak beti jasan izan du
zapalkuntza zoritxarrez
zauri gebiegi pairatu ditu
erdararen eraginez
nahiz ta borroka ez den izango
ez eroso eta ez erre
gurea dena babes dezagun
behar adina adorez
euskara legez maite duenak
ulertuko nau bihotzez.*

Baztango hartzaindegirako azterketari buruz

lazko kurtsoan Elizondoko hartzaindegian klaseak hasi zirelarik aunitz hurrekin topatu ziren, bi irakasle-asistente zeuden eta bertze bat behar zuten. Hau zela eta, Udalak konbokatoria bat atera zuen, baldintza bakarra OHO egina izatea zen, gero hurrekin esperientzia izateari eta tituloak izateari puntuak ematen zizkioten. Eskutitz bat bidali ziguten, azterketa bat egiteko eguna, ordua eta tokia erranez.

Ailegatu zen eguna eta Garde jaunak erran zigan, euskara jakitea beharrezkoa zela nahiz eta konbokatorian ez atera baldintza bezala. Baldintza hau oso ongi iduritzen zaigu eta ez bakarrik ongi, baita derrigorrezkoa ere. Baina, ez al zuten lehen erran behar? Gauza da jende asko joan zela azterketa egin gabe euskara ez zekitelakotz edo gutxi zekitelakotz, baina noski! joan zen jendea ez zen konforme joan eta keja bat jarri zuten udaletxean. Ondorioz, egin genien azterketak ez zutela balioko

erranez eskutitz bat bidali ziguten. Alde batetik kejarengatik eta bertze aldetik haurren kopurua jeitsi zelakotz.

Orain, aurtan eta zoritxarrez Pili Oyaregi falta dugunez zer egin dute? "Beguratu omen dute iaz egin dako azterketak eta hoberenari eman diote falta den plaza". Gure ustez, eta ez dugu erran nahi ez zela hoberena izango, baliteke, zertaz ez? baina azterketarengatik baino gehiago uste dugu hartu duten neska Garde jaunaren laguna eta herrikoa delakotz hartu dutela.

Bertze aldetik uste dugu hori ezin dela egin, aurtan bertze azterketa bat egin behar zuten. Gainera, hartu duten neskak ez daki euskaraz, ikasten ari da. Berriro ere zer etorkizuna espero dugu euskara geuren haurren eta Baztango hizkuntza izateko hurrei giro erdaldun batean hezitzen bazaie? Bukatzeko erranen dugu ez dugula deus neska horren aurka baizik eta udalaren aurka, horrela ez baidateke funtzionatu.

AZTERKETA EGIN GENUEN
NESKA BATZUK
ENA.- 72.165.346
72.430.083

Lesaka garbia

Francoren heriotzatik hogeit urte pasa direnean ulertezina da oraindik herriko paretak pintadaz eta kartelaz estaliak agertzea. Zorionez, gauzak adierazteko paretaren anonimata erabili behar zenaren denborak joan dira.

Egia da askotan arte puntu bat dutela, are gehiago erabilitako tokiak leku hondatuak eta muruak direnean. Baina spray-en piratak ondasun historikoak, publikoak eta pribatuak erabiltzen dituztenean salatu behar dugu. Egileak, bai estetikagatik eta bai zentzutasunagatik, jakin beharko luke noiz egiten ahal den pintada bat. Gauzak salatzeke edo zerbait jakinerazteke bada ere, kontuan hartu beharko zuen ez lukeela inposizioaren bidez ingurukoei higuindu behar.

Bortzirietako hondamena ikusiz Bertizko Partzuergoak Lesakan erabakitzen dena eremu guztira zabaltzea eskatu du. Halere, denon artean laguntzen ahal dugu hau ikustean salatuz, horrela gure ingurugiroa eta gure herriak politik mantentzea lortuz.

EAJ-PNV BORTZIRIAK
ENA.- 72.697.875

MAGNETISTA - NATUROPATA ZURE BEGIAK ZAINTZEN DITU

✎ BISTAREN ERREKUPERAZIOA


- Begi alferrak, estrabismoa, kataratak, retinosis, begietako neuritis, begietako infekzioak, konjuntibitis, miopia...

✎ REHABILITAZIOA

- Artrosis, Artritis reumatoidea, bihurdurak, lumbalgiak, zerbikalgiak, psoriasis, diabetes, azaleko alergiak, zizareak, oinetako izerdiak, birusak, asma, buruko minak, kolesterola, erreuma, prostata

Kontsulta Ordutegia: Arratsaldeko 2etatik 10etara (Ordua eskatu)
San Marcial 7 - 4. - IRUN ☎ (943) 62 30 55





EGUNKARIA-Nafarkaria

«1960 urte aldera jende aunitz etortzen zen Antxitonea trinketera. Sarrera zazpi duro kobratzen genuen, eta bertsolariak 250 pezeta kobratzen zuten. Antxitonean berean bazkaldu, eta sosa irabazten genuen».

Mariano IZETA

Antxitonea Trinketearen 100. urteurrena dela eta.
Nafarkaria: Egunkaria
94-III-18

«Atzerritarrei ordaindu zaiena guri ordaindu balitzaigu Errealean geratuko ginatekeen. Guk ez genuen Realetik aldegin nahi, baino tontoak ere ez gara. Eskatzen genuena Barcelonak ematen zigun eta borregatik etorri ginen».

Joxe Mari BAKERO

Goizuetar futbolaria Barçon
Argia
94-III-20

♦ Europako Merkatua sartzeak kalte haundia ekarri dizue?

❖ Bai, baino kalte haundiagoa sortzen du daukagun krisiak.

♦ Zein bi kolore dituzu gustokoak?

❖ Berdea eta gorria.

♦ Bezeroek edateko, sangria edo whiskya?

❖ Udan sangria eta neguan whiskya.

♦ Alaba bat baldin bazenu, nola deituko zenuke?

❖ Esperanza.

♦ Sinisten duzu horoskopoan?

❖ Gauza onak jartzen baditu bai, bertzenaz ez.

♦ Zenbat urte dituzu Bentan lanean zaudela?

❖ Hamairu urte.

♦ Itipi-ttapa ordainduko zenuke?

❖ Bai, gaurko egunean gauza guziengatik ordaindu behar duzu.

♦ Bosniako gerrak, lorik kentzen dizu?

❖ Loia kendu ez, bainan kezkatu bai.

♦ Maitasunerako zein aro nahiago duzu, udaberria edo udazkena?

❖ Okasioneak balin badira, urte guzia.

♦ Hiru afizione?

❖ Akordeona jotzea, parasikologia eta kotxeak.

♦ Lotan egindako ametsak izitzen zaituzte?

❖ Ez, bainan ongi definitu behar dire.



Nicolás MENDIBERRI

Zugaramurdiko benta bateko langilea



Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

MOLINERO

PINTURAK



Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen arabera prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40 BERA

Euskadiko Itzulua apirilaren 7an ailegatuko da Ibardinera

Aurtengoa azkenekoa aldia izanen dela diote

KRISTINA BOAN

Diru arazoengatik, antolatzaileek oraindik ez dakite aurtengo edizioa azkenekoa izanen den. Beran akautzen den etapa antolatzeak hiru milioi pezeta balio du eta laguntzaileak urtetik urtera guttiago dira: aurtun 'Alco'k ez du laguntza ekonomikorik emanen ezta 'Señorio de Sarria'k ere.

Hortaz gain, urtero egiten den gisa berean, karreterako zuloak tapatuko dira txirrindulariek arazorik izan ez dezaten. Bertze urtetan Ibardin gaineko karretera udalak mol-datzen du, baina aurtun, Altxate karrikako zulozarrak tapatzea Diputazioak hartu du beregain, izan ere zati hori moldatzea bere ardura baita. Dena dela karrika osoan zolabe-rritu beharrean, zulo haundienak tapatu baino ez dituzte eginen.



Eskolako eta Ikastolako ikasleek Sebasen atxiloteta zela eta 'sentada' bat burutu zuten martxoaren 17an Suspela parean. Gai honekin loturik, eta Sebasen familia ekonomikoki laguntzeko, kontu korronte bat ideki dutela jakinerazi dute Gestorek; Euskadiko Kutxan 135.0.00512.1

Bera-Urruña harreman eguna apirilaren 16an

Apirilaren 16rako, 'Bera-Urruña harremanak' izeneko programaren barnean ospakizun berria dago antolatua. Arratsaldean, Agerrako zelaian, bi herriotako rugby taldeen arteko partidua jokatuko da.

Ondotik berendu -krakada izanen da Iamotenean.

Arratsean Bera eta Urruñako musika talde batzuk arituko dira Eztegarra Pilotalekuan. Berakoak 'Zup' eta 'Noise Hole' izanen dira.

Diplomak suhiltzaileentzat

Berako 25 suhiltzaile boluntarioek udalak martxoaren 18an 'Zalain Jate-txean' ordaindutako bazkariaren ondotik, Nafarroako Gober-nuko agintari baten eskutik diplomak har-tu zituzten.

ttipi-flash

❖ **Polikirolde-giko kristalak**
Udal Kirol Komisioak, Polikirolde-giko leiho eta atee-tako kristalak hobe-kiago lotzea eska-tuko dio obrako ar-duradunari.

❖ **3.551**
Azkeneko udal erroldaren arabera, Beran 3.551 biz-tanle daude; 1.827 gizon eta 1.724 emakume, guztira iaz baino 2 guttiago.

❖ **Mendi lanak egiteko**
Udalak langile bat hartuko du mendi lanak egiteko, ahal bada 'contrato so-cial' delakoaren bitartez. HBko kontzejalak kontra-tazio mota honen kontra agertu ziren, euren ustez «lan-gabezi egoerari probetxua ateri nahi zaiolako».

❖ **Altxateko Plazan kamioirik ez**
Martxoaren 14ko udalbatzarrean Altxateko Plazan aparkatzen diren kamioiek sortzen duten arazoari so-luzioren bat bila-tzeaz solastu zen.



Legia 11 - 63 06 64 BERA

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIK
BURDIN TRESNERIA
Altxate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

BEREAU jateetxea

Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 637382 - LESAKA



ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altxate 28 - BERA




Patrizio Goienetxeren egoera salatu dute

Amnistiaren Aldeko Batzordeak, preso lesakarraren isolamendua denuntziatu du

AITOR AROZENA

Bortzirietako Amnistiaren Aldeko Batzordeak Patrizio Goienetxe preso politiko lesakarrak lau hilabete isolaturik bete dituela salatu du.

Batzordearen erranetan, lau hilabete darrazki bakarrik, gartzelako funtzionarioak bertzerik ikusi gabe. Gainera, legez, hilabeteen behin berderen, bere senideekin edo lagunekin kontaktu zuzena edukitzeko eskubidea badu ere, oraindik ez du bere familia besarkatzerik izan. Honetaz gain, amnistiaren aldeko erakundeak dioenez, "hilabeteen bi aldiz etxera telefonoz deitzeko eskubidea izanik hori ere ez diote utzi". Patiora ateratzerakoan ere hainbat arazo izaten ditu, aldiro biluztu egiten baitute eta bueltarakoan aunitan gauza guziak hankaz goiti aurkitu ditu.



Sei lagunek utziko dute ezpatadantzari taldea. Horiek ordezkatzeko bilera bat egingen da apirilaren 18an Irain eskolan

Artxibo Argazkia

'XI. Txoko-txiki' ipuin eta bertso paper lehiaketa antolatu du ikastolak

Tantirumairu ikastolak hamekagarren urtez antolatu du 'Txoko-txiki' izeneko ipuin eta bertso paper lehiaketa. Ipuin lehiaketan, OHoko 2. eta 3. mailakoak orrialde bat bete beharko dute guttienez, 4. eta 5. mailakoak

orrialde bat t'erdi eta bigarren etapakoak bi orrialde, guztiak gai librearekin.

Bertso paper lehiaketari dagokionez, bi maila osatu dira. 4. eta 5. mailakoak lau koplak eta bi zortziko txiki idatzi beharko dituzte. Bigarren eta-

pakoak berriz, hiru bertso idatziko dituzte nahi duten doinu eta neurrian, honako gai honi: 'Aurtengo udan izango al dugu piszinarik?'.

Lanak apirilaren 18a baino lehen igorri behar dira ikastolara.

ttipi-flash

Ezpatadantzari
taldeak apirilaren 18an Irain eskolako patioan bilera bat egingen du arratseko 8etan. Aurtan dantza taldean sartzeko asmoa duten mutilak ager daitezela.

Bidasoa
Kultur Zerbitzuak (BKZ) 15 eta 30 urte arteko gazteei zuzendutako kirol ekitaldien eskeintza onartu du udalak. 74.000 pezeta paratu beharko ditu udalak denbora libreko ekitaldi hauen ordainketan laguntzeko.

Txapelketak
Lesakako I. mus txapelketa jokatu zen martxoaren 26an peñen batzordeak antolatuta. Koskilla ostatuan berriz, futbolin txapelketa jokatu du Aste Santuaren ondoren. 15 bikotek eman dute izena.

Karmelo Landa
HBko eurodiputatuak hitzaldia eman zuen Arrano elkartean. Inguruko eta Europako ekonomiaz solastu zen.

ARRANO

OSTATUA
Legarrea - LESAKA

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

XATURETXEA

JATETXEA
Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

EKAITZA CAFE
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

KOXKILA
OSTATUA

Larunbatetan mus txapelketak sari ederrekin

Zarandia 4 - LESAKA



Helduen Pilota Txapelketa hasi da

Palaz bederatzi bikotek parte hartzen dute,
eskuz seik

PELLO ETA ALBERTO

Martxoaren 19an helduen pilota txapelketari hasiera eman zitzaion. Palaz bederatzi bikotek parte hartzen dute, eskuz berriz, seik. Udaberri osoan barrena jokatuko dira partiduak, xeheago erranda, maiatzaren erdi aldera arte. Partiduak larunbat arratsaldeetan eta igande goizetan izaten dira.

Partxis lehiaketa

Lehen aldiz egin da Larraburuan, eta herrian ere, noski, emaztekiek parte hartu duten joko lehiaketa edo konkurtoa: partxis lehiaketa, oraingo honetan. Jokatu duten zortzi bikoteen artean

Javier Indaburu



Partxis lehiaketan parte hartu dutenak

Jabier Indaburu eta Mertxe Santesteban bilakatu dira irabazleak. Ez du Larraburuak negu honetan bezalako mugidarik ezagutu igande arratsaldeaz.

Herriko Etxe zaharra moldatzeko laguntza eskatu du udalak

Herriko Etxe zaharraren egoera ikusita, etxe hau moldatzeko laguntza eskatu dio, berriz ere,

Udalak Nafarroako Gobernuari. Teilatua eta barne-egituraren aurrekontua 21 milioi t'erdikoa da.

ttipi-flash

- ❖ **10 milioi** pezetako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak Herriko Etxeko moldaketa lanearako.
- ❖ **Bizilagunen** kopurua 882ra igo da 1993aren akaberarako.
- ❖ **Zinegotzien** urteko soldata 82.000 pezetakoa izanen da aurren, alkatearena berriz, 165.000koa.
- ❖ **Udalaren** aurtengo aurrekontua 120 milioi pezetakoa da.
- ❖ **Larun mendira** joan ziren martxoaren 20an herriko hamabortz neska-mutiko eta zortzi guraso. Ibilaldia aipatutako mendiaren magalean hasi zen, harastaino kotxez joan baitziren.

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

**SASKI
OSTATUA
LESAKA**

IRUBIDE

Pentsuak eta Abonoak
saltzen ditugu

Tfnoa: 637127

ttipi-ttapa

5.700 harpidedun
20.000 irakurle



ÑAKI ITURRIA

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Instalazio zaharren berritzeak

PORTERO AUTOMATIKOAK

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Jauregieta 12
☎ 635028 - 635246
31760 ETXALAR

Curtidores 5 - 1. ezk.
☎ (943) 61 24 24
20300 IRUN

KOXXKONTA



Sagardotegia
zabalik

Deitu
erreserbak
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - **LESAKA**



Lanean hasia da Biltokiko junta berria

Inork ez zuen eskeintzarik egin Bentako 'Maestraren etxea' erosteko

OSKAR TXOPERENA

Berri honekin berandu xamar baldin bagabiltza ere, aipatu gabe ezin utzi honezkeroko Biltokiko junta berria lanean hasia dela. Gogoratu, erabaki garrantzitsuak hartu zirela azkeneko batzarrean: aldaketa ttikiren batekin onartu zen barne araudi berria, Josetxo Arburuak heldu den urtetik antzinerako junta berritzeko proposatutako modua onartu zen (bazkide guztiak parte hartzeko proposatua) eta azkenik 8 lagun berri sartu ziren juntan lehengo sistemaren bitartez: lehendakaria: M^a Josefa Etxeberria, diruzaina: Josune Iguzkiagirre eta boka-



San Jose egunean ezkondu ziren Rosa eta Ignacio. Beran bizi behar omen dute. Zorionak.

lak, Kristina Migele-
na, Tere Txoperena,
Eulogio Mitxelena,

Jose Mari Iturbide,
Miguel Javier Hita eta
Iñaki Hita.

Hutsean gelditu da Bentako maestraren etxea saltzeko udalaren lehen ahalegina, inork ez baitzion epe barnean eskeintzarik egin. Orain, apirilaren 8ra arte zabaldu dute berriro.

Torturaren aurkakotaldearen mozioa onartu zuen udalak. Idatzia zioen bezala, tortura errazten duten legeak deusean uztea eskatu zuten.

ttipi-flash

Behiti

joateko arriskua zuenez, Itxaingo borda aldera doaien bideko azpiko parera moldatu behar izan dute udaleko langileek.

Gazteen

konfirmazioak apirilaren 4ean izan dira aurtan.

Txirindulari

afizionatuentzako Nafarroako itzuliak sprint berezia izan du Igantzin iaz bezala eta horretarako, 40.000 pezeta ordaindu behar izan ditu udalak.



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

zimeldi

ALTZARIGILEA

▲ Edozein xokotarako muebleak diseinatu eta egiten ditut

▲ Zure diseinuaren arabera material ezberdinak aukera ditzakezu.

Deitu eta neurriak hartuko dizkizut

© 387017 • ETXALAR

LESAKAKO
ZUBIA

N-121-A

ZUMELDI

ETXALARKO
BENTA

ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo guztietako muebleak

ERAKUSKETAK:

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27

Tfnoa: 637034 - LESAKA

Larunbat
arratsaldetan
zabalik

Herri kirol taldetakoak ongi ari dira Nafarroako jokoetan

Bertzalde, Amaia Telletxeak Nafarroako bertsolari txapelketaren finalean kantatu zuen Lesakan

MARTA ITURRIA

Herrian atera diren herri kiroltako bi taldeek oraingo ederki jokatzeko ari dira Nafarroako jokoetan. Kadeteak bi probatan, sokatira eta proba konbinatuan alegia, lehendabizikoak doazi. Infantilak berri, sokatira bigarrenak eta proba konbinatuan hirugarrenak. Beraiek uste baino hobekiago jokatzeko ari dira.

Amaia Telletxea txapelketako finalean

Amaia Telletxeak Nafarroako bertsolari txapelketaren finalean ailegatzea lortu zuen. Aitor bere anaiak al-



Jubilatuak aurtengo batzarra burutu zuten

Artxiboa

diz, ez du finalera iristek izan, lehenengo kanporaketak eliminatua gelditu baitzen. Berak erran zuenez "eman nuena baino gehiago ematen ahal nuen".

Jubilatuaren asanblada

Martxoaren 13an, igandea, Zahar Txokoan urteroko asanblada egin zuten jubilatuak. Berrogei jubilatu azaldu ziren, ber-

tan bazkaldu zuten eta bazkal ondoan Modesto izan zuten akordeoia jotzen. Beraiek adierazi dutenez, egun ederra pasatu zuten.

ttipi-flash

Nafarroako Gobernuak

aparkalekurako terrenoa erosi ahal izateko dirulaguntza eman dio udalari.

Karretera

moldatu zuen enpresa berak herriko plaza ere moldatu du. Itxoiteak pena merezi izan du, ederki gelditu baitira biak.

Nafarroako

Mendi Federazioak Herriko Etxearen ondoan Arantzako ibilbideen planoak paratu ditu. Mendi-ateratzeko lagungarri dira.

LORA DENDA

TXIRULA

Bitirio 627542 LESAKA

bitxikeriak • opariak • eskulangintza

SAROB

okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

BOAN TAILERRA

CITROEN Banatzailea

KOTXE BERRIEN

ERAKUSKETA ETA SALMENTA

Herriko Etxeko Plaza - BERA



KATTU

OSTATUA

JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA

ika

ALBARTETXEA

JATETXEA

HARAGI ETA ARRAINAN

ESPEZIALIZATUA

Erreserbak egiteko deitu 627637 Ora

Antoiu 26 • LESAKA



Futbol-sala txapelketa bukatzeko puntuan dago

Sunbillako bi taldeen joku maila onaren ondorioz, klasifikazioaren lehen postuetan izan dira

IXABEL ETA JOSUNE

Futbol-sala txapelketa azkenetan dago eta arrakasta haundia izan duela aipatu behar da. Hau irakurri orduko, Sunbillako bi taldeak elkarren kontra jokatu izan dute eta partidu honetako irabazleak finalerdietarako txartela izanendu. Bi taldeek hagitz ongi jokatu dute, klasifikazioan agerian ikusten den bezala. Orain arteko klasifikazioetan, Ulibeltzak A taldeko Juanjo da goleatzailerik onena 22 golekin. Erregularitatean, Etxalarko Manu doaie lehenbizikoa 19 punturekin, Zamora sarian Toldos Martinez taldeko Franzesena da lehena



Egur lotea nahi duenak apirilaren 14a baino lehen eman behar du izena

Artxibo Argazkia

eta kiroltasun gehien erakutsi duen taldea Bar Titi da.

Sua egiteko egurra

Sua egiteko egu-

rraren lotea nahi duenak, apirilaren 14a arte eman dezake izena Herriko Etxean. Banaketarako zein sisteman erabiliko den ez

dakite oraindik, baina hori bai, joan den urtean loterik hartu ez zutenek eskubidea izanen dute aurreko lehenbizikoak izateko.

Torturaren kontrako mozioa

Azken plenoan HBk aurkeztutako torturaren kontrako proposamena hurrengo batzarrean tratatuko da. Hasierabatean, EAko hiru zinegotzik kontra botatu zuten, bat abstenitu zen eta HBko biak alde botatu zuten. Halere, ongi irakurri gabe zegoelakoan hurrengoan tratatzeko utzi zuten.

❖ **Etxetik Plazara** aldzikariko lehiaketaren erantzunak TTIPI-TTAPA hartzen duzuen tokian edo Herriko estatuan uzten ahal dituzue.

Mari Cruz
LENTZERIA
Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEn



MALDAERREKA, S. L.

Egunaren 24 ORDUTAN
zure esku gaituzu.

ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA
Tfnoa: 637404



TLALOK

LORAZAINTZA MINDEGIAK

✕ **LORATEGIETAN OBRA ETA
ZAINTZE LANAK**

✕ **APAINKETAKO ETA
MENDIKO PLANTEN MINDEGIA**

✕ **SASI-GARBITZE LANAK**

Urritzokieta Auzoan • **ETXALAR**
Tfnoa: (943) 62 25 69 (etxean)



Nagusi berria du 'Norfres' kontserba lantegiak

Bertzalde, Erreka eskubaloi taldeak ez du lortu lehen mailarako igoera fasera sartzea

TXEMA ETA KARMELO

Izen berarekin segituko badu ere, Pa-saiako 'Otz' enpresak hartu du bere gain Norfres-en ardura. Lan bera egiten segituko dute, gehien bat bakailua eta legatzarekin, baina orain arteko produkzioa bikoiztu nahi da. Orain bakailu eta arrain paella dira eskaera haundieneko kongelatuak.

Gaur egun 24 langile ari dira bertan, 12 egun osoko kontratuarekin eta bertze 12ak orduka.



Norfres lantegia eskuz aldatu da

Artxiboa

Erreka eskubaloi taldeak ez du mailaz igotzerik izan

Erreka elkartearen senior eskubaloi taldeak aurtengo denboraldia akitutzat eman du, bigarren fasetik igoera fasera pasatzetik ez baitu izan.

Luis Goñi entrenatzaileak, "igoera heldu den urtean izan beharko du" zioen hon-

darreko partidua jokatutik. Fase honetako irabazlea Atarrabiako Beti Onak izan da eta berak bakarrik lortu du lehenbiziko mailarako igoera fasean jokatzeke eskubidea.

'Erreka' datorren urtean ere saiatuko da.

Askin errekan tuboak paratuko dira maiatzan

Miguel Angel Oiartzabal enpresak egingen du Askin errekan tuboak sartzeko lanak 855.600 pezetan truke. Herriko Etxean presentatutako hiru eskeintzen artean enpresa

honek aurkeztutakoa omen zen onena, udalaren erranetan.

Lanak maiatzaren lehen hamabostaldian hasiko dira eta ekainaren lehen egunaren antzinetik bukatu.

ttipi-flash

❖ Musika

eskolako estatutuak onartu dira, alegazioak egiteko epearen barnean eskakizunik ez baita agertu. Udalean, ia ahobatez onartu ziren, bakarrik Jose Ignacio Zabala agertu baitzen estatuto hauen kontra.

❖ Bertizko

Turismo Partzuergotik egindako eskaerari erantzunez, pintadak eta kartelek sortzen dituzten arazoen kontrako neurriak hartuko dituela adierazi du udalak.

❖ 1.262

biztanle zituen Doneztebek urte hasieran, udal errolda edo zentsoaren arabera, iaz baino 26 guttiago. Horietatik 634 emakumezkoak ziren eta 628 gizasemeak.

EPI TELLETXEA
IGELTSEROA

Amezti Berri • Tfnoa: 450749 - 450751
DONEZTEBE



AMEZTIA
Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - **DONEZTEBE**

fm
FOTO
MENA
ELIZONDO

Ezkontzetako erreportaiak
argazkiak eta bideoa

MARKOAK eta MOLDURAK

Eta orain, **DONEZTEBEN** ere

Tfnoa.: 45 0825 • Nagusia 4 • **DONEZTEBE**

Tfnoa.: 58 01 55 • Santiago 40 • **ELIZONDO**

Soldaduskaren ordezkoko zerbitzua egiteko aukera emanen du Zerbitzu Mankomunitateak

Udalez udal aztertuko dute posibilitate hau

TtPI-TTAPA

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitateak, soldaduskaren ordezkoko zerbitzu soziala bertan lanean egiteko aukera emanen die seguraski inguruko objetore edo konzientzia eragozleei.

Halere, ordezkoko zerbitzurako erakunde laguntzailea izan aitzinetik, udal ezberdinetan gaia aztertzea eskatu du Mankomunitateak. Momentuz, Doneztebekoan aldeko postura hartua dute.

Lau lanpostu oposizioan

Bertzalde, Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitate honek lau lan-



Doneztebeko udalak aldeko postura hartua du.

Artxioba

postubetetzeko oposizio-lehiaketa deialdia luzatua du eta zenbait kasutan azterketak egiten ere hasiak dira. Administrari-laguntzaile postu bat bete-

tzeko 59 lagun aurkeztu ziren eta martxoaren 26an hasi ziren lehen mekanografia-frogak egiten. Familiako langilea izateko bi postuetarako 18 la-

gun presentatu dira eta euskara teknikari lanposturako 22 pertsonak emana dute izena. Hauen azterketa probak ere laister izanen dira.

Quorum nahikorik ez aurrekontua onartzeko

Zerbitzu Orokorreko Mankomunitatearen presupuestoak ez dira oraindik onartu, martxoaren 24ean egin dako bileran ez baitzen guttieneko alkate-zinegotzi kopururik bildu. Saldias, Labaien, Urrotz, Donamaria, Oitz, Ituren, Zubietta eta Doneztebeko ordezkari bat agertu ziren, baina Doneztebeko berte biak, Sunbilla eta Bertizaranako biak, Elgorriaga, Eratsun eta Ezkurakoak ez ziren agertu ere.

J.I. MARITORENA LARRALDE igeltseroa

Borda eta baserriak erosten dira
© 450977 (arratseko 8etatik 11etara)
DONEZTEBE

ttipi-ttapa

5.700 harpidedun
20.000 irakurle

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA LABAIEN

BELARRA Kafetegia

Plater konbinatuak

Amezia 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan

Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

PELUAGA

SINTESIS



- OSAGARRIAK
- BOLTSOAK
- PAINUELOAK
- BITXIAK
- ZAPELAK

GAURKO EMAKUMEARENTZAKO MODA

Colon Pasealekua 7 • © 943-622816 • IRUN

Ituren

Mendi plantazioak eginen dira herriko zenbait parajetan

Bertzalde, plaza inguruko lanen bigarren zatia martxan da 15 milioi pezetako aurrekontuarekin

IBAN ISASI

Udala, Iturengo zenbait parajetan plantazioak egiten ari da azkenaldiotan; hara nola Ameztia, Abatzakarren, Asurdin, enbaltse edo urtegi inguruan eta bertze toki batzutan. Aipatu behar da, Ibarako mindegian ere landaketak egiten ari direla azken asteotan.

Plazako lanen bigarren zatia

Hamabortz milioi pezetako aurrekontuarekin egiten hasiak dira Ameztia eta Lasaga alderako bidearen zolaberritze lanak.

Bidenabar, lan hauekin batera Pala-



Plaza moldatzeko lanen bigarren zatia egiten ari dira

Karmele

zio ondoko larraina ere ixten ari dira. Azkeneko obra honen prezioa, aurrekontuaren barrenean 1,5 milioi pezetakoa da gutti

gora behera, proiektua eta zuzendaritza gas-tuak barnean direla. Itxiera hau harri losa leunduak erabiliz egiten da.

Argi berriak martxan

Moldatu ondotik, elizako bideko argiteria azken aste hauetan estrenatu da.

Urrozko saneamendu lanak adjudikatutak P.F.

Urrozko uren bideratzea eta saneamendu lanen lehen-dabiziko zatia, Oitzko 'Excavaciones Sasoi' izeneko enpresari adjudikatu zaio.

Guztira hiru eskeintza presentatu ziren Urrozko udalean. Hasiera batean 12.300.000 pezetakoa prezioan ateri zuen udalak lan hau, baina azkenean 3 milioi pezeta merkeago eginen da, 9.300.000 pezetako eskeintza aurkeztu baitzuen Sasoi.

SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi



- **MEKANIKA:** } Kotxea, traktorea...
 - **SOLDADURA:** }
 - **OIHANZANTZA** edo **FORESTALA**
 - **NEKAZARITZA** eta **MEKANIKA**
 - **OSTALARITZA, PUERIKULTURA**
- BI URTE**

Nor matrikula daiteke?

OHO edo EGB egin eta zuzenean, nahiz eta "Graduado Escolar" ez izan.

EUSKARAZ eta ERDARAZ



Erreformarekin ere, 14 urteak arte herrian izango dira haurrak

Horixe esan omen zion Hezkuntza saileko arduradunak herriko ordezkaritzari

ESTEBAN AROZENA

Zalantzarik gabe azkenaldiotan herriko gurasoengan kezka haundiena sortu duen gaia LOGSE edo Irakaskuntzaren Erreforma izan da.

Orain arte onartutakoaren arabera, bi helburu nagusi lortu nahi dira: gutxienez 14 urteak arte herriko eskolan segitu ahal izatea erreformak eskatzen dituen baliabideak administrazioak jarriaz, eta bestetik, adin hortatik 16 urteak arteko ikasketak Herriko ikastetxeren batean egiteko oztoporik ez izatea. Honen zergatia errepidearen



Hamalau urte arte haurrek herrian ikasten segitzea nahi dute gurasoek

egoeran dago noski.

Eskakizun hauek bideratu nahian, udal, guraso eta eskolako irakaslez osatutako ordezkaritza Iruñean elkarriketatu zen

Hezkuntza saileko arduradunekin. Bertan esan zenez, ziurtatua omen dago erreformarekin ere 14 urteak arte herrian izango ditugula haurrak orain

arte bezala. Bigarren puntuak, aldiz, ez du baiezkorik jaso oraingoz, Gobernuak ez du ongi ikusten 16 urte arteko ziklo hori Nafarroatik kanpo os-

atzea. Alternatiba bezala bi aukera hauek eskeintzen ditu administrazioak: bata, Leitzara, egunero joan-etorriaz, eta bestea Iruñera, aste osoan bertan geldituz.

Dena den, azken hitza ematear dago, eta gurasoekin zuzenean elkarriketatzeko asmoa agertu omen zuten Hezkuntza saileko agintariek.

❖ Gazte Asanbladak

antolaturik paleta txapelketa mixtoa jokatzen ari da. Erantzun ikaragarria izan du iniziatiba berezi honek, gizonezko eta emakumezkoek izena eman baitute, 30 bikote osatu arte.



Nekazariantzat laguntzak Nafarroako Gobernutik

Eskaerak aurkezteko epea hilaren 15ean ixten da

JUANA M^a SAIZAR

Mendi nekazariei zuzendutako laguntza hau jasotzeko aukera izanen dute nekazal aseguru ordaintzen dutenak.

Aziendak izateagatik laguntzak (abere mota bakoitzeko bereziak), baserriak konpontzeko, nekazari gazteentzat lehenengo instalazioa egiteko diru laguntza, baso landaketak egi-

teko laguntzak daude, eskaerak apirilaren 15a baino lehen eginez gero. Xehetasun eta baldintzei buruzko infomazio gehiagorako telefonoa: 106638 (Iriarte jauna).

Unai Onsalok
amurrain ederra
harrapatu zuen
denboraldia hasi

orduko
Arg. Juana Mari



ttipi-flash

❖ Auzolanean

berlandatuko dira 1.000 haritz amerikano.

❖ Bake epaile

postua Joaquin Barandarianek beteko du beste lau urtez, orain arte bezala.

❖ Kanposantuko

pareta berritzeko asmotan dabilta.

❖ 292 biztanle

zeuden Areson urte hasieran, iaz baino bi gutxiago.

❖ Leader planean

nekazariantzako kurtsoak antolatu dituzte. Infomazio gehiago 278011 telefonoan.

Leitzako krosaren XVI. edizioa igande honetan

Senior mailako proban, Juan Mari Garinek 1989an ezarritako marka hobetzen saiatuko dira

JOSEBA AZPIROZ

Igande honetan, apirilak 10, burutuko da Aurrera elkarteak antolatutako Leitzako krosaren hamaseigarren edizioa.

Urtero bezala, bi kilometro térdiko zirkuitoa prestatu da. 10-12 urte arteko korrikalariak buelta bat eman beharko dute, 13-15 urtekoak eta emakumeak bi buelta, 16-18 urtekoak eta beterranoak hiru buelta eta senior mailakoak 4 buelta, 10 kilometro osatuz. Probaren erretorra Juan Mari Garinek ezarri zuen 1989. urtean, 30 minutu eta 36 segundutan.

Izen ematea egun berean egin daiteke Aurreran eta 16 urte-tik gorakoak 500 pe-zeta ordaindu beharko dute. Proba bukatze-rakoan sariak bana-tuko dira eta laister-keta bukatzen duen guztiari kamiseta bat emango zaio.



Irabazleak 30.000 pezeta jasoko ditu, 20.000 bigarrenak eta 10.000 hirugarrenak. Emakumezkoetan berriz, lehenak 15.000 pezeta eramanen ditu, 10.000 bigarrenak eta mila duro hirugarrenak

7.000 azienda botako dira herri larretara

Azkeneko deklarazioaren arabera 246 behor, 218 behi eta 6.607 ardi botako dira aurtengo herri larretara. 168 behor Aritzko itxiturara, 24 Urdolako itxiturara, 16 Aizanera eta gainerakoak beste mendi-

tara. Behiak berriz, 53 Aritzera, 92 Urdolara, 79 Aizanera eta gainerakoak beste mendi-tara. Azkenik ardiak, 2.491 Aritzera, 220 Urdolara, 462 Aizanera eta gainerakoak beste mendi-



ttipi-flash

Aste Santuan

ohizko ospakizun-
nez gain bat berezia
izan dugu, 14 hau-
rren bataioa (haue-
tatik bat 9 urtekoa
eta bestea 10ekoa).
Bestalde, apirilaren
17an, hamazazpi
urteko 65 neska
mutilek konfirma-
zioa edo Sendo-
tzako sakramentua
jasoko dute.

Ainara Zabaleta Apezetxea

hamahiru urteko
tenislari leitzarra,
bigarren gelditu da
Iruñeko "Club
Natación Pamplona"
elkarteak anto-
latutako Nafa-
rroako Irabia-Prince
tenis zirkuitoa-
ren haurren biga-
rren txapelketan.

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32 • Tfnoa: 510086 • LEITZA

B
BIDASOA
GARBIKETAK

Servicios de Limpieza
BIDASOA, S.L.

630557 • BERA



AKORDEOIAREN
GOI-MAILAKO
AKADEMIA

Angel Manuel Belio

AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

DOMINÉNEA Etxea
San Andres karrika, 40 - NARBARTE

943 - 61 50 55



Abel Matutes eta Karmelo Landak Bertiz bisitatu zuten


Europako komisarioa eta HBko eurodiputatuaren bisitarekin indar berezia eman nahi zaio Partzuergoari Europara begira

J. IGARABIDE

Bertizko Turismo Partzuergoa urinezta-tzen ari da udara be-gira. Hainbat elkarte prestatzen ari dira tu-rismoaren garapena bilerak eginez. Part-zuergoa indartzen ari da, batez ere Europara begira. Baztanen iza-nak dira Abel Matutes europear komisarioa, Belateko tuneleko obrak ikusi bidenabar eta bertzalde, Karme-lo Landa HBko euro-diputatu. Turis-moaren eragina naba-ria izan da azken as-teotan, batez ere Aste Sainduan eta San Jose inguruko asteburuan.

Nafarroako jaialdiak

Elizondon eginen dira Nafarroako jaial-diak abuztuan. Ekital-diak, kultur ekintzei lotuak izanen dira. Era berean, Javier Ziga margolariaren biz-pahiru erakusketa egi-nen dira, ziklo bat osatuz.



Oharriz inguruan depuradora eraikitzen ari dira

Argazkia: Karmele

Saneamendu lan batzuk, Hirurteko plangintzan sartuak

Elbete, Elizondo, Irurita, Lekaroz, Aint-zano, Ariztegi eta Gartzaingo sanea-mendu obrak 'Plan Trienal' delako plan-gintzan sartuak dira. Guztira 125 milioi pe-zetako aurrekontua izanen dute lan hauek eta Nafarroako Go-bernua 81,2 milioi

pezeta emanen lituzke. Gainerakoa udalak ordaindu behar du.

Bertzalde, hama-zazpi ur depositotan klorazio sistemak pa-ratu behar dira: Arraioz, Lekaroz, Etxarri, Ariztegi (Gartzain), Gartzain, Irurita, Ziga, Oronoz, Zozaia, Azpilkueta,

Gorostapolo, Arizkun, Amaiur, Bozate, Iñar-bil, Urrasun, Berroeta eta Anizen. Argi in-darra eramanen dute ur depositoetara eta klorazio sistema egin. Guztira 22.700.000 pezeta kostako litzake, 20.400.000 pezeta Nafarroako Gober-nuak paratuak.

ttipi-flash

8.053 bizilagun

zituen Baztanek urte hasieran, joan den urtean baino 25 gutiago. Horietatik 4.085 gizonezkoak dira eta 3.968 emakumezkoak.

Kontrapasako ehizia baimentzea eskatu dio udalak Nafarroako Par-lamentuari, Union Baztanesaren eki-menez.

'COFES'

Familiaren Orien-tabiderako eta Sexu Heziketarako zen-tru bat zonalderako paratzearen alde agertu da udala, Malerrekaekin bat eginez.

Margo erakusketa

Apirilan Rosa Zun-zarren margolaria-ren erakusketa iza-nen da Arizkunenea kultur etxean.



KOMUNIOAK

Kanpaina berri honetan, eskeintzen dizkizugun oroigarrien artean baduzu non aukeratu.

Hartu ordua:

ELIZONDO ☎ 580491

DONEZTEBE ☎ 450364

EGUN HAUNDI BATETARAKO

OROIGARRI ON BAT

LARRAMENDI • Supergarbitzeta Idorrean

Saskaitz plaza 1 (Butano ondoan) • ☎ 45 23 81 • ELIZONDO



Edredoia, alfonbrak, arropak eta larruak, idorrean garbitzen dugu



JATETXEA

Tfnoa.: 580101

Santiago 1

ELIZONDO

Galarza

BAZTAN FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA

SALMENTA • TRASLADOAK

Jaime Urrutia 53 ELIZONDO

Tfnoak: 580924-580814-580373

«Aurten ardi-esnea errexago eta prezio hobean saltzen ari da»

Javier Urrutia, hainbat artzainen esnea komertzializatzen duen Baztandarra Kooperatibako gerenteak dioenez

J. IGARABIDE

Zenbat ardi-esne biltzeko asmoa duzue aurtengo kanpainan?

Joan den urtean 200 mila litro eta aurten berdintsu espero dugu.

Komerzializazioa eta negozioak nola egiten dituzue?

Artzainen komisiok gurekin batera ardi gasna egiten duten enprekin negoziatzen du prezioa. Hasieran esne guti izaten denez, Sunbillako Lizun-i saltzen diogu. Esnearen kopurua haunditzen denean gasnategi haundia-goatarat jotzen dugu.

Zer prezio egingen du aurten esneak?

Martxo bitarte 105 pezeta ordaindu digute eta martxotik aitzinera 108,5 pezeta.



Baztandarra kooperatibak artzainekin batera negoziatzen du esnearen prezioa ardi-gasna enpresen antzinean

Zuek biltzen duzuen esneak baldintzarik bete behar du?

Esneak tankean hoztua behar du izan. Bakteriologia kontutan, joan den urtean hasi ginen exigitzen, baina horrek arazo

ugari sortu zigun eta aurten ez da horrelako baldintzarik, milioi bat bakteriarik arte onartzen dugu.

Esne gordinarekin gasna egiteko bakteriarik aunitz dira, ezta?

Bai, baina enpresa

haundiek ez diote hainbertze begiratzen bakteriologiari. Toki aunitzetako ardi esnea erosi eta gasna egin antzinetik pasteurizatzen dute, bakteriologiari hainbertze garrantzi eman gabe.

ttipi-flash

❖ Oronozko

babes ofizialeko 12 etxebizitzak Telletxea enpresak eginen ditu.

❖ Elizondoko

Zahar Etxean hiru lanpostu betetzeko lehen probak egin dira, ikastaroa bukatu ondotik.

❖ Hiru lanpostu

aterako ditu laister udalak: euskara teknikaria, kultur dinamizatzailea eta kirol koordinatzailea. Lanpostuaren perfila egiten ari dira momentu honetan.

❖ Istripu larria

San Jose biharamonean Elizondon gertatutakoa. Erratzuko borts gaztek izan zuten eta hiru larriki zaurituak suertatu ziren.

❖ Erratzuko

elizaren teilatua berritzeko lanak laister hasiko dira.



ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

LARRALDEA



SAGARDOTEGIA

Asteartetik ortziratera 8etatik antzinerak
Larunbat eta jaiegunetan zabalik

© 452121 • LEKAROZ

Jar zaitez esku onetan!

Gure zentroa Metodologia Estetikoan akreditaturik dago.
Dermosteticista batek gidatua eta Medikua Espezialista batek
kontrolatua, zure arazoak moldatzeko
tratamendu pertsonalizatu bati esker.

Gainera Hidromasai Bainera, Sauna, Solariuma, Makilaia
eta ilea kentzeko sistemak (elektrikoa, argizari beroa eta
argizari epela zainendako espeziala) zuretzako.



Beatriz

Lurrindenda eta Apaindegia
© 58 02 83 • Santiago 53 • ELIZONDO

**MENDI
OSTATUA**

Santiago 25 • ☎ 580313
ELIZONDO

**OSKORRI
LIBURUDENDA**

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

Sara

Abertzaleek urrats haundia eman dute hauteskundeetan

Fagoaga hautagai abertzale saratarrak,
Sarako botoen %31,52a eskuratu zituen

MIXEL ETA JACQUELINE

Martxoaren 20an iragan diren hauteskundeetan abertzaleek urrats haundia eman dute.

Ezpeletako kantonamenduan Louis Genin (eskuindarra) izan da hautatua lehen itzulian gure herrialdeko kontseilu generalerako. Abstentzioa haundia izan zen Saran (% 44a). Azpimaratu behar da Euskal Herri osoan abertzale hautagai guziek aurrera egindako urrats haundia. Saran, adibidez, bigarren postua kendu diote sozialistei bozen hirutik bat eskuratuz (283). Dударik gabe, plazartzan dituzten ideiak bide egiten dutela.



Martxoaren 20ko Hauteskundeak	EZPELETAKo kanton.		SARA	
	Bozkatzaileak	%	Bozkatzaileak	%
Genin (UPF)	3.406	63,80	515	57,35
Capdeville (PS)	924	17,30	61	6,80
Fagoaga (abertzal.)	658	12,33	283	31,52
Eskuin muturra	211	3,96	21	2,33
PC	139	2,61	18	2

Beti Gazte elkartearen Biltzarra

Beti Gazte taldeko adinekoen laugarren Biltzar Nagusia burutu zen martxoaren 16an, San Iñaziko 'Pullman' jantegian.

114 lagun bildu ziren bazkari ezin hobe batean anaitasun beroenean elgarrekin gozatzeko.

Elkarteko partaide den Manex Fagoagak dioenez, "aintzinekoek erraten zuten: «Ez da gehiago haurrik!». Giroa ikusi ondoan nik erran dezaket: «Saran ez da gehiago zaharrik»".



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562
IRURITA - BAZTAN

SUKALDE ETA BAINU MOBLEAK

Egoki-ren banatzaile
baimendua



HERRIKO ETXETIKO EDANTEGIA

Michel eta Kaitlin
Guendiaín

Tfnoa: 59 54 25 19
64310 SARA



MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 60

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305





Urrezko ezteiak ospatu dituzte Luciano Mihura eta Dionisi Elorgak

‘Gas-Butano’ko langile faltsuak etxez etxe ibili dira itxurazko errebisioengatik animaleko kantitateak kobratuz

ALIZIA OLAIZOLA

Juanikoteneko Luzianok eta Dionisik berrogeitamar urte bete dituzte otsailaren 16an ezkondu zirenetik, eta beren alaba M^a Josefak eta Mateo Arandiak ere, zilarrezko ezteiak bete zituzten martxoaren 18an.

Guzti hori ospatzeko, San Jose egunean elgarrreratu ziren eta meza ondotik bazkaria izan zuten.

Zorionak lauei.



Luciano, Dionixi, Josefa eta Mateok senideekin batera ospatu zuten beren ezkontzetako urtemuga San Jose egunean

ttipi-flash

❖ Gas-Butano


Itxurazko errebisioengatik animaleko kantitateak kobratu dituzte.

❖ Bertze jatetxe bat herrian

Laister idekiko dute bat Leorlasko Ikaburuan.

❖ Bataioa

Martxoaren 20an Iban Inda Dainciart-en bataioa izan zen, urteko lehena.



Artzain besta apirilaren 9an ospatuko da

Ekainaren 18ko gaupasan berzalde, ‘Sustraia’ eta ‘Niko Etxart’ izanen dira martxa emateko

KORO ETA MARGARI

Larunbat honetan, apirilak 9, ospatuko da aurtengo ‘artzain besta’. Ez da ez ez musikarik, ez dantzaldirik ezta “besta” hitz hunek adieraztera ematen duen ekintzarik. Aspalditik ospatzen da besta hau Sara, Urdazubi eta Zugaramurdiko artzainak afari batean mahai-inguruan bilduz eta normalki, gasna egiten den sasoina denez, hau izaten da afaria nagusia, ardiak, esnearen prezioa, gasna... ponpoxoago gelditze-



Aurtengo gaupasa ekainaren 18an ospatuko da

ko erraten ahal da ‘artzain kongresua’ dela.

‘Armua’ jatetxean egingen da aurtengatik

gan nahi duenak Palazioan apunta daiteke.

Gaupasa

Dagoeneko finkatuak dira aurtengo gaupasarako xehetasunak. Beti bezala, hor izanen ditugu zantantzarrak eta akelarrea; musika taldeen aldetik ‘Sustraia’ eta ‘Niko Etxart’ izanen dira martxa ematen dutenak.

Hori bai, normalean gaupasa San Juan gauek hurbilen dagoen larunbatean egiten bada ere, aurtengatik antzinetik izanen da, ekainaren 18an.

EZKONTZAK

Ignacio Barberena Iribarnegarai eta **M^a Paula Urrutia Etxeberria**, Erratzukoak, martxoaren 12an.

Jose Miguel Goikoetxea Zabaleta eta **Vania José de Andrade**, Leitza eta Rio de Janeirokoa (Brasil), martxoaren 19an.

M^a Angeles Zelaieta Errandonea eta **Alonso Antuña**, Sunbilla eta Tarazonakoa, martxoaren 26an.

Ignacio Fagoaga Lopez eta **Rosa Eugi Apeztegia**, Bera eta Iganztikoa, martxoaren 19an.

JAIOTZAK

Marta Telletxea Salgado, Elizondokoa, martxoaren 9an.

Miren Juantorena Zuñiga, Leitzakoa, otsailaren 24ean.

Unai Almandoz Altugarai, Iganztikoa, otsailaren 19an.

HERIOTZAK

Veronica Visitación Santxotena Errotaberea, Arizkungoa, martxoaren 5ean, 88 urte.

Dolores Argiñarena Elorga, Erratzukoa, martxoaren 1ean, 84 urte.

Martin Telletxea Otxandorena, Iruñean, martxoaren 19an, 42 urte.

Isabel Amezttoi Altzuguren, Sunbillakoa, martxoaren 16an, 83 urte.

Julia Mitxeltorena Gamio, Sunbillakoa, martxoaren 6an, 78 urte.

BENOLA




**ARMAIRU ETA BARRUEN
PROIEKTU ETA DISEINUA**

**ESPEZIALISTAK GARA
ARMAIRU ENPOTRATUETAN**

Berrotaran, 7 • IRUN

Tel. 62 42 80



BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta

Urgentziak.....088/061

Osasun Zentruak

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428 / 637336

Leitza510248 / 510573

Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako ospitalea .. 102100

SSko urgentzi

zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria226404

Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea614600

Gipuzkoako ospitala ... 460299

Erresidentzia453800

Anbulatorioak

Irún630264/621106

Anbulantziak

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka

(larrialdiak).....(943) 464622

Doneztebe

(larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Doneztebe637404

Elizondo580924

Lesaka.....637404

Suhiltzaileak

Oronotz-Mugaire592044

Garraioak

Bidasotarra631150

Baztanesa580129

Leitzaran515018

Aberiak:

Iberduero450335/450336

Bittor Elizagoien txapeldun

Martxoaren 27an burutu zen Lesakan Nafarroako bertsolari txapelketa nagusiaren finala. Bertan, Bittor Elizagoien arraioztarra suertatu zen txapeldun. Txapeldunordea, iaz bezala, Estitxu Arozena lesakarra izan zen. Kartzelako gaian bertso onenaren saria, Ernest Alkhatek eskuratu zuen. Arzaillus eta M. Arozena faboritoak ez ziren uste bezala aritu (3. eta 5. gelditu ziren).



Lesakako Irain eskolako 1. eta 2. mailako ikasleak izan genituen bisitari martxoaren 17an. Aldizkariaren inguruko hainbat galdera egin ondotik eskuineko bertso horiek kantatu eta idatzi zizkiguten ordenadorean.

Lesakar gaztetxoak

TTIPI-TTAPA bertatik ezagutu asmoz irakurle bitxiak honeraino gatoz bertako aldizkaria ikusteko gogoz Lesakatik Berara ez gara heldu astoz.

Tikiak izan arren badakigu leitzen ta eskolako berriak ditugu ekartzen; argazki eder batekin gu gara aurkezten ia zuek asmatzen duzen gure izen ta abizen.

1. eta 2. mailako neska-mutikoak

Arg.: KARMELE

EROSLE LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bittiria 67 - Tfnoa:637264



**GIZONEZKOEN
MODA**

**muñeca
de trapo**

**EMAKUMEZKOEN
MODA**

BLAK, IRUNGO LUIS MARIANON

**ETXANDI
TXOKO
erretegia**

Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

Baztango emakumeen eskubaloi taldea bikain ari da

Jokoan dauden bigarren fasean ongi moldatuz gero, igoera fasean joka dezakete

Baztango Kirol taldea emakumeen bigarren dibisioaren bigarren fasea jokatzen ari da. Lehenengo fasean bigarren postuan gelditu zen Bidebieta taldearen gibeletik. Bi talde hauek klasifikatu ziren Araba eta Bizkaiko lehenbiziko bi taldeekin batera. Hori dela eta, bigarren fase honetan Bilboko San Adrian, Mundaka eta Bidebieta taldeen kontra ari da. Orain arte, bi partidur berdindu, bat irabazi eta bertzea galdu dute. Igoera fasean jokatzeko bi talde sailkatzen dira eta Baztango kirol taldeko eskubaloiak oraindik helburu hau lortzeko asmoa du.

Bertzalde, neska eta mutilen kadete taldeek Nafarroako kirol jokuetan parte hartzen segitzen dute emaitza onak lortuz. Neskak txapeldunen taldean ari dira, iaz eskuratutako txapela lortzeko asmoz eta mutilak sailkapenerako taldeko lehian sartuak daude.



Igoera faserako sailkatzea da Baztango eskubaloi taldekoen asmoa

Lesakako II. Herri laisterketa burutu zen martxoaren 27an

Batzoki elkarteak Lesakako udalaren eta Caja Rural erakundearen laguntzaz bbigarren urtez antolatutako Lesakako Herri laisterketa burutu zen martxoaren 27an. Goiz goizetik hasita, benjamin-aurreko mailarekin eta eguerdiko senior proba bitarte

hainbat laisterkalari aritu ziren, emakumezkoetan zein gizonzkoetan.

Eguraldiak ere lagundu zuen eta jende dexente bildu zen goizean zehar korrikalariak ikustera. Probak bukatutakoan, sari banaketa eta zozketak egin ziren.



Jesus Mari Calvok ez zuen parte hartzerik izan lesioak medio

Bote prenton

Etxeberria

erremontelari donostebarra momentu goxoan pasatzen ari da eta joku maila bikaina erakusten ari da. Ezkurra herritarra eta biek, Aizpuru eta Matxineri irabazi zieten eta Patxi izan zen hoberena.

Kirol taldeak

TTIPI-TTAPAN

Zuen taldearen nondik norakoak TTIPI-TTAPAN agertu nahi badituzue, bidal itzazue aurtengo denboraldiaren laburpena eta taldeko argazkiak.

Mendi irteerak

Berako Larun mendi taldeak apirilaren 10ean Xantutxeara eta 17an Mugaire-Bera.

Goizuetako Umore Onakoak Belaguan izanen dira apirilaren 16 eta 17an.

Goizuetako

paleta txapelketa mixtoan 30 bikotek eman dute izena. Kopuru polita, gazte asanbladaren ekimen berexi honetarako.



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- ☐ Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- ☐ Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- ☐ Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin.

Koltxoia aldatzeko aukera berezia aprobetxatu ezazu.

1. kalitateko koltxoia oso prezio interesgarrietan

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**

Gure Txokoako neskek lehen postua eskuratu dute Gipuzkoako ligan

Txapeldunak izan arren, seguraski uko egingen diote mailaz igotzeari, diru arazoak direla medio



'Zikiri'-ren neskek denboraldi ederra burutu dute

Artxibo Arg.

Berako Gure Txokoako taldeko neskek lehen postua eskuratu dute Gipuzkoako ligan, denboraldi bikain baten ondotik. Jose Luis Altzugarai 'Zikiri' lesakarrak entrenatzen duen taldeak ez

zuen hutsik egin azken jardunaldian, Aretxabaleta taldeari 0-6 irabaziz.

Eskualdeko nesken futbol talde bakarrak emakume gazteak ditu oraindik, baina pixkanaka esperientzia

haundia hartu dutenak eta hori arras baliagarria izan zaie aurtengo liga eskuratzeko.

Euskal Herria mailako ligan jokatzeko aukera izanen dute, baina 'Zikiri' entrenatzailearen erranetan,

Hamabostaldiko jokaldiak



Gure Txokoa Berako futbol-sala taldea.

Gipuzkoako bigarren mailatik lehen mailara igotzea lortu du, igoera fasean lehen postua eskuratu ondotik. Duela bi urte hirugarren maila hasi ziren, baina beraien lanaren emaitza begi bistan da.

Debekatutako lekue-tan arrantzan ari direnak.

Arrantza denboraldia hasi bezain laister atera dira arrantza-leak kirola egitera. Halere, arrantzaren onerako izan arren batzuk ez dute debekatutako lekuak errespetatzen.

"diru arazoak izanen ditugu eta horretaz gain, neska gazteak dira, gehienak ikas-

leak eta ezin gara horrelako kategorietan sartu, dedikazio gehiago behar delako."

KUTTUNA

Navarro Villoslada 10, 1. esk.
(Gurutzearen plaza)
Tfnoa: 151505
31003 IRUÑEA

Laguntza Psikologiko eta sexologikorako zentroa

- Orientazioa, diagnostikoa eta laguntza psikologikoa.
- Depresioa, antsietatea, larritasunak.
- Beldurrak, fobiak.
- Bikotearen harreman arazoak: krisiak, bereizketak, harreman sexualak.
- Sexualitatearen inguruko arazoak:
 - ✗ Inpotentzia.
 - ✗ Gogo falta.
 - ✗ Harreman mingarriak...

Heziketa sexualerako zentroa

Ikastaroak/Hitzaldiak

Sexualitatea, Heziketa sexuala, Antisorkuntza, HIESa, Menopausia, elkarren arteko harremanak, koedukazioa, berdintasunerako heziketa...

Honako talde havei zuzenduak:

Emakume taldeak, ikasleak, gazteak, Guraso elkarteak, irakasleak, hirugarren adina

Euskaraz eta erdaraz atenditzen dugu

AGENDA EGUNEZ EGUN

AGENDA PRAKTIKOA

ANTZERKIAK ELIZONDO

► Apirilaren 10ean

Kasino elkartean, arratseko 8etan kafe-antzerkia: 'Teatro de sac'.

► Apirilaren 17an

Kasino elkartean, arratseko 8etan kafe-antzerkia: 'Marceline i Silvestre'.

ERAKUSKETAK ELIZONDO

► **Apirilan.** Arizkunean Rosa Zunzarren margolariaren margo erakusketa.

Z I N E KARTELDEGIA

LEITZA

► **Apirilak 8-10.** «La madre muerta»

► **Apirilak 10.** «Laberintuan barrena»

► **Apirilak 15-17.** «Demolition Man»

GUARDIAKO BOTIKAK

► **Apirilaren 4tik 10ra** Bera, Ituren, Irurita, Urdazubi, Basaburua eta Goizueta.

► **Apirilaren 11tik 17ra** Arantza, NARBarte, Elizondo (F. Lezaun).

► **Apirilaren 18tik 24ra** Etxalar, Doneztebe, Elizondo (J. Iturralde).



Azelga penkak almendra saltsan

Osagaiak

• Azelga kg. bat • irina • limoi ura • gatza • baratzuria • almendrak • urdaiazpiko pika-tua • salda • olioia •

Prestatzeko manera

Azelgak garbitu eta xuriaren (penka) zatirik haundienarekin gelditu. Ahalik eta hari gehien kendu eta laukietan puxkatu. Ura, gatza, irina eta

limoi ura egosten paratu eta irakiten hasien denean penkak gehitu. 12 minutuz egosten eduki ondok ateri eta ur hotzean sartu. Ongi idortu eta gero irina eta arraultzean pla-pla egin eta ongi berotutako olioan prexistu. Segituan saltsan sartu.

Saltsa egiteko, ontzi batean olioia, urdaiazpikoa, almendra



Ana ELEZGARAI
Bereau
• Lesaka •

xehetua eta baratzuri pixkat paratu. Irina gehitu eta espaltula batekin ongi nahasi. Salda eta gatza gehitu eta nahi bezala irakin ondok penkak sartu. Dena berotu eta serbitu.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

• **Zerrikumea** (20 kilokoak): 5.500 pzta.
• **Zerri gizena** (95-100): 140 pzta./kilo
• **Zerramak**: 90-100 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

• **Aretze gizenak:**
Idixkoak: Pzta./kg. Kanal
Extra 660
1.koa 640
2.koa 600

Urruxak: Pzta./Kg. Kanal

Extra 670
1.koa 650
2.koa 620
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

• Aretze ttikiak

(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 25-30.000 eta idixkoak 39-43.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 39-43.000 eta idixkoak 50-55.000 pzta.

• Behi zaharrak:

Behi nabar gizena: 440-450 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 470-500 Pzta./Kg. Kanal.

DATU-ITURRIAK: EHNE,

ZUBIRIA MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza
• **Bertako sagarrondoak** 930.
• **Udareondoak** 930 pta.
• **Bertako aranondoak** 1.050 pta.
• **Gereziondoak** 1.050 pta.
• **Kiwiondoak** 600 pta. (2 urtek.)
• **Feijoaondoak** 1.000 pta. (2 urt.)



❖ BARAZKIAK ❖

• **Tipula** zientoa 250 pta.
• **Udaberriko aza** 400 pta.
• **Letxuga** zientoa 500 pta.
• **Tomatea** 30-40 pta. bak.

LEGARRA

• PAPERTEGIA • TABAKOAK •
• LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZUAK

⇒ Fax Publikoa
⇒ Enkuadernazioak
⇒ Inprenta lanak • fotokopiak
⇒ **%25eko**

deskuentoa
diska, kasette eta liburuetan

Legarrea 9, © 637030 - LESAKA



CRISTALERIA VELATE

• Kristaleria orokorrean •
• Barnekaldeen dekorazioa •
• Bainurako mobleak eta manparak •
• Pareta ispiluak •
• Bidriera artistikoak •

Proiektuak eta aurrekontuak, konpromisorik gabe

Villaba Etorbidea 12 - IRUÑEA ☎ 132021

Merkatarien karrika 5 - DONEZTEBE ☎ 450991

Pedro Axular 1 - ELIZONDO ☎ 580825

KROSA

LEITZA

► **Apirilaren 10ean**
burutuko da Leitzako XVI. krosa. Kategoria guziak parte har dezakete eta izen emateak 500 pta. balio du 16 urtetik gorakoentzat. Antolatzailerak 'Aurrera' elkarteak.

ARTZAIN-BESTA

ZUGARRAMURDI

► **Apirilaren 9an**
Sara, urdazubi eta zugarramurdiko artzainek urteroko besta izanen dute. Bazkaria 'Armua' jatetxean.

KONTZERTUAK

BERA

► **Apirilaren 16an**
rock kontzertua Eztegarra Pilotalekuan 'Zup', 'Noise Hole' eta...

MENDI-IBILALDIAK

BERA

► **Apirilaren 10ean**
Larun Mendi Taldeak Xantu Etxeara ibilaldia burutuko du.

► **Apirilaren 17an**
Larun Mendi Taldeak 'Mugairi-Bera' ibilaldia burutuko du.

GOIZUETA

► **Apirilaren 16-17an** Umore Ona mendi taldea Belaguara joango da.



"Arazorik haundiena gai honetaz dagoen ezjakintasuna da"

Dena dela arazorik haundiena gure ustez, zona honetan gai honetaz dagoen ezjakintasuna da. Gure ustez

baratzantza lanbide polita izaten ahal da baratztea gustoko duen gaztearentzat eta lan bila kanpora joan nahi ez duenarentzat. Bere lanpostua sortzen ahal du bide honetatik, eta bertzelde, ez da lan desatsegina, kontrakoa baizik.

Guzi horretan pentsatuz, Teknika eta Kudeaketa Institutuak (ITG), baratzantza eta negutegiei buruzko ikastaroa antolatu du Doneztebeko Juansenean. Apirileko hilabeteetan eta 60 orduz, gai honetaz dugun informazioa jendeari ailegaraztea da gure nahia, ez dadila aukerak ez ezagutzeagatik inor saiatu gabe gelditu. Baratzek ematen dituen aukerak ezagutzeko interesatuak daudenak, apirilaren 12an arratsaldeko 3,30etan Juansenean egiten den bilerara agertzea bertzerik ez du.

TEKNIKA ETA KUDEAKETA
INSTITUTUA-ITG

Erredakzioan itzulia

Baratzeko produkzioa ekonomikoki interesgarria da TKI-ITGren ustez

Bizimodua nabarmenki aldatu da duela zenbait urtetik honat, eta gauregun bizirik segitu nahi duenak, bizimodu berrietara egokitu beharra dauka.

Gauza bera gertatzen ari da gure alderdi honetan ere, gauzak aldatzen ari dira, eta horrexegatik, norabide berriak bilatu beharko ditugu.

Zona honetarako ekonomikoki ona eta egokia den norabide horietatik bat baratztea dugu, freskoan kontsumitzeko barazkien produkzioa. Produkzio hori negutegitan egin izaten ahal da edo bertzenaz estalkirik gabeko baratzetan. Izan ere, zona honek izugarri aukera onak eskaintzen baititu baratzeko produkzioarako eta baita lore produkzioarako ere, eta salmentarako leku onean dago.

Zentzu horretan, baratztea dedikazio osoko langintza modura hartzen ahal da eta baita baserriko irabazbi-deen osagarri modura.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 ora

ETXEBIZITZAK

ELIZONDO. Santiago 60an pisua salgai. 90 m², hiru logela, jantokia, bi bainugela eta trasteroa. Balkona ere badu. Prezio negoziagarria. ☎ 580453

BERA. Pisua salgai. Legia 15. ☎ 631135.

GOIZUETA. Borda-nabea salgai, Tartazu auzoan. 220 m² + 6.000 m² landaririk gabe + 45.000 m² landatua. ☎ 514162.

BAZTAN - MALERREKA. Etxea erosi nahi dugu bertan bizitzeko. ☎ 580941 (Arantza eta Mikel, 6etatik antzinera).

BERA. Garaje edo lokal bat erosi edo alkilerrean hartuko nuke. ☎ 630557

BERA. Pisua salgai. Kalefakzioa eta trasteroa. 10 milioi. ☎ (943) 468813 gaeuz.

IBILGAILUAK

Ford Orion GLD Diesel (SS-U) salgai, 400.000 pezetan. ☎ 631283.

Renault 21 GTD (NA-U) salgai. ☎ 637705.

Nissan Patrol luzea, 6 zilindrokoa salgai. ☎ 510404.

AZIENDAK

Bi zakur salgai (kanitxeak), 2.500 pezeta bakoitza. ☎ 610867 (1etatik 2etara).

Ardi zakurkumeak, merke eta onak. ☎ 450216.

Duela zenbait zenbaki Maritxu astoa senar elegante baten bila ari zela agertu zen. Asto arra izanzen gero, deitu telefono honetara. ☎ 450286.

Zakurra bi urtekoa emateko dut. Artzai aleman arrazako mezkla du. ☎ 631486.

Ehizi zakur emea salgai, konejo, erbi eta azeriak hartzeko, Bruno de Jura arrazakoa. ☎ 615040.

Hiru share salgai. Sa-neamendua egina dute. ☎ 635159.

Zakurkume bat boxer arrazakoa, 10 hilabete-koa salgai. ☎ 637356.

DENETARIK

Kartera bat aurkitu dut Etxalarren. ☎ 635174.

Esne tankea 320 litrokoa salgai Ezkurran. ☎ 615078.

Behiak jeitzeko makina salgai Ezkurran. ☎ 615078.

Elektronika klaseak behar ditut, Baztan, Bida-soa edo Irun aldean. Deitu ☎ (948) 452021.

Sukalde kalefaktore-ekonomika bat salgai. ☎ 581121.

Akordeoia 120 bajo-takoa, egoera onean salgai. ☎ 637158 (Kol-do).

Telebista Sony markakoa salgai. 21 pulgadakoa erabili gabea (zozketa baten irabazia). ☎ 627515.

Brotxe bat, familiako oroigarria, galdu dut Lesakan, martxoaren 20ko eguerdian. ☎ 637056 edo 637135.

Matrimonio kuarto osoa, berri-berria, 3 urtekoa, salgai. ☎ 580746.

Trikitixa ia berria salgai prezio onean. ☎ 451596.

Lehenbiziko komunioko neska-arropa salgai. Merke. ☎ 279171.

Mando karroa salgai prezio onean. ☎ 514221.

LANA

Elektrizista ekonomikoa lanerako prest. ☎ 631283.

Perfumeria, apainketa eta kosmetikan ari den frantziar multinazional batek emakumezkoak edo gizonezkoak behar ditu. Salmenta zuzena, diru etorri oso ona, muestrario bikaina. ☎ 510506 (gauean).

AGURRAK

Asko kostatzen bazait ere, azkenean zuri agur bat idaztea bururat uzait. Oraindik zutaz oroitzen naiz, ez dut galduko itxaropena. Sutagar zuretzat.

Lesakako Juanjo T.ri: zorionak zure 23. urtebetetzeagatik, kontuz zahartzen ari zara. Berak dakien neska polit bat.

Arantzako Igor Oskozeri: ez zaitut ahazten, zutan pentsatzen nago gau eta egun. Muxu bat. ?.

Lesakako Amaia Ordo-kiri: zorionak eta urte aunitz bete zure gelako lagunaren partetik.

Doneztebeko Bittor, Nerea eta Jabiartxori zorionak zuen urtebetetzean eta urte askotarako. Sunbillako lagunak.


Zigako Kañirentzat: zorionak zure 22. urtebetetzean (apirilak 4) eta segi beti bezain sinpatika. Lagun bat.

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,
4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegia bat,
2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,
aseguro etxe bat, ileapaindegia mixto bat, drogeria bat,
bidai agentzia bat, PVCKo nahiz zurezko leiho eta ateak,
hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

*Denetarik gauzarik hoberenak.
Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.*

Centro Comercial



**LUIS
MARIANO**
Irun



EKIPAL

KOMERTZIORAKO MOBLE FABRIKA

Zura eta metalezko materialetan eginak
Kalitate eta prezioaren arteko oreka egokian

*Edozein klasetako komertzioa duzula,
ekipatzeko behar dituzun moble guzti
guztiak guk fabrikatuko dizkizugu:*

(Mostradoreak, bitrinak, rejillak, kubo sistemak...)

FABRIKA, BILTEGIAK ETA ERAKUSKETA

Bekolanda z/g • GOIZUETA • ☎ 514225 • Fax 514271



KASU HURRENGO ttipi-ttapari!!!

ETXETIK PLAZARA

3. alea beldu da eta...

Orain artekoak egin dituzula...

ZORIONAK!

Ez duzula egin oraindik...?

Zeren zai zaude?

GU ZURE ZAI GAUDE



OHARRA: Bigarren alearen erantzunak
apirilaren 12a baino lehen bidali



Plaza del Ensanche 8 • IRUN • Tfnoa: (943) 61 45 09



MALDAERREKA, S.A.

Bittiria kalea - 31770 LESAKA - ☎ 63 74 04

ETXANIZ

Lesakako Iturria anaiak



**Ur ixuri
gehiagorik ez
zure bainuan!
Bañera nahiz
dutxarako
manparatan
aukerarik
haundiena,
baita saunako
kabinetan ere**

**GURE HIRU
ARDATZAK:**

**Esperientzia
Kalitatea
Prezio onak**

Juan Arana 1 • Tfnoa eta faxa: (943) 611767 • IRUN